

Sartu begien barnera
 sortu!
 zabaldu iluntasunean loratzen
 diren
 erraiak

sartu gorputzen abarora
 sortu!
 sumatu eszenako arnasestuetan
 ahotsak

sartu isiluneen epelera
 sortu!
 astindu posibleen mundura doan
 maratila

PREZIOAK
6 € - 10 - 12 €
BONOAK
BONOMARATILA (6 ikuskizun): 30 € EGUNEKO BONOAK (ostirala, larunbata): 12 €



Oier Guillan



OTSAILAK 20

“Konpota”

Dxusturi Teatroa

ANTZERKIA

OTSAILAK 21

“NAN”

Ertza-Asier Zabaleta

DANTZA

“Transhumantzia”

Mixel Etxekopar

& Francois Rossé

MUSIKA

OTSAILAK 22

“Zazpi aldiz elur”

Tanttaka

ANTZERKIA

“Pepino ustelak (hozkailean)”

JB Pedradas

ANTZERKIA

OTSAILAK 23

“Gabrielen lekua”

Gabriel Aresti Kultur Elkarte

/ Zenbat gara

BERTSOAK / MUSIKA / ANTZERKIA

**Leioa
 2014**

DISEINUA: Idoia Beratarbide

ARTEDRAMA eta KULTUR LEIOAK elkarlanean sortutako programa kulturala.
 Antzerkia, dantza, bertsoa, musika, performancea... uztartu eta plazaratzea helburu duena.
 Lau egunez publikoak **euskal sorkuntza** ezberdinez gozatzeko parada.
 Zabaldu maratila, ireki leihoa.

“KONPOTA” DXUSTURI TEATROA

ZUZENDARITZA:
Pablo Ibarluzea

ANTZEZLEA:
Eneritz Artetxe

ZUBI egitasmoak
lagundutako lana

Otsailak 20
(20:30)

“Jaun xarmant hura eskertu nuen. Eta zin egin nion neure buruari, izena ahaztu dudan fruituak ez zuela adarrean eskegita askorik iraungo”. “Baina koño, non jarri dut familia argazki hori?”. “Bere arbolari dudu maitea deitzen dion morroiak, psikoanalista bat behar du berehala, psikoanalista mutil tekniko bat. Inork ez dio bere arbolari dudu maitea deitzen, primerako papardoa ez bada behintzat”.



8 €

Auditorium · 75'

“NAN” ERTZA-ASIER ZABALETA

ZUZENDARITZA:
Asier Zabaleta

ANTZEZLEAK:
Asier Zabaleta, Iñar Sastre

NAN, dantza garaikidea, testua, bideoa eta zuzeneko musika uztartuz, nortasunaren eta nazionalitatearen mugetatik at eginiko bidaia eszeniko bat da. Iñar Sastre piano-jotzailearen laguntzarekin, herria, nazioa edo aberria bezalako kontzeptuen inguruan hausnartzeko gonbidapena luzatzen zaigu dantzaren bidez.

Otsailak 21
(20:30)



10 €

Auditorium · 55'

“TRANSHUMANTZIA” MIXEL ETXEKOPAR & FRANCOIS ROSSÉ

MUSIKARIAK:
Francois Rossé (pianoa), Mixel Etxekopar (xirula, ahotsa, ttun-ttuna, txistuak)

“Transhumantzia” bi sortzailer handiren musika-begiraden topagunea da: Mixel Etxekopar (Zuberoa) eta François Rossé (Alsazia). Lehena, lotuta dago Euskal Herriko mendiei, artzainei eta txoriei; bigarrena, Europako tradizioari.

Inprobisaziotik sortzen da kontzertu hau. Aire berritzailerak, iparretik etorriak. Txorien soinua, artalde batena... Bide musikal singularretik doan bidaia.

Otsailak 21
(22:00)



6 €

Erakusketa gela · 75'


“ZAZPI ALDIZ ELUR” TANTTAKA

ZUZENDARITZA:
Mireia Gabilondo, Kike Díaz de Rada

ANTZEZLEAK:
Musikariak: Iñaki Salvador, Angel Unzu. Abeslaria: María Berasarte. Antzezleak: Mireia Gabilondo, Iñaki Rikarte

Otsailak 22
(20:30)

“Zazpi aldiz elur (Mikel Laboa Elurretan)”, lagun arteko bilgune baten antzeko zerbait da; denok daukagu gure gogoan neguko gau elurti batean bizi izandako pasadizoren bat; leihoetatik sartzen den argi-zuriaren erreflexuak adierazten digu elurrez inguraturik gaudela... Denbora gelditu ez, baina beste “tempo” ezberdin bat markatzen digu, horman eskegitako erloju zahar batek bezala, lasaitasunez “tik, tak... tik... tak...”.



10 €

Auditorium · 75'

PEPINO USTELAK (HOZKAILUAN) JB PEDRADAS

ZUZENDARITZA, ANTZEZLEA:
Jabi Barandiaran

Gizon bat emakume bilakatzen da publikoaren aurrean. Aulki bati esku-lotuta dago Esperanza Pino Saá (Espe Pino) izeneko emakumea. Bere ondoan polizia batek zaintzen du (erdi lo), aulki huts batean eserita. Zer ez dakiena itxaroten duen bitartean, mintzo da Espe: “Bakar bakarrik nagoelako ni edonon. Edonon. Beti. Ta horregatik nago ni ero. Edo alderantziz. Beraz, inoiz-inori kontaktu ez dizkiodan nire bizitzako gauzak kontatzen ditut”.

Otsailak 22
(22:00)



6 €

Erakusketa gela · 60'

“GABRIELEN LEKUA” GABRIEL ARESTI KULTUR ELKARTEA / ZENBAT GARA

MUSIKARIAK:
Rafa Rueda (gitarra, mandolina, ukelelea, banjoa), Iban Urizar (tronpeta, korneta), Naia Membrillera (perkusia)

ANTZEZLEAK:
Oier Guillan, Ainhoa Alberdi, Iraia Elias

Zazpi lagun dira taula gainean, eta, sormenaren teoriak dioten legez, nahasteak ekarri du berrikuntza. Olerkia, irudia, musika, bertsoa eta antzerkia oratu eta, denek bat eginda, Gabriel Arestiren, baina ez bakarrik haren, artearen goraipamen sutsua oholtzaratu dute, sabeletik...

Otsailak 23
(20:30)



10 €

Auditorium · 90'



Leioa 2014

